



# BERDINDU ZERBITZUA

URTEKO TXOSTENA





<b>ARRETA PERTSONALA</b>	3
SARRERA	4
ARRETEEN LABURPENA	5
ERABILTZAILIEN BATURA OSOARI EMANDAKO ARRETA	6
- URTEAN BEHINGO ARRETA	6
- ERABILTZAILI MOTAREN ARABERAKO ARRETA	7
- ADINAREN ARABERAKO ARRETA	9
- JATORRIAREN ARABERAKO ARRETA	10
- PROBINTZIAREN ARABERAKO ARRETA	11
- KONTSULTA-MOTAREN ARABERAKO ARRETA	11
- BESTE ESKAERA GARRANTZITSU BATZUK	15
- KONTSULTA KOMUNIKABIDEA	16
- ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA	17
FAMILIEI LAGUNTZEKO TALDEAK	18
BERDINDU ZERBITZURAKO GOMENDIOAK ETA HOBEKUNTZA	20
<b>ESKOLA ARRETA</b>	21
SARRERA	22
BERDINDU HEZKUNTZAKO ZERBITZUAK	23
IRAKASLEAK – FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK	23
- AHOLKULARITZAK	23
- IKASTETXEAK ETA IRAKASLEEN FORMAKUNTZAK	23
- FORMAZIOA JASO DUTEN IKASTETXEAK	24
- FORMAZIOA JASO DUTEN IRAKASLEAK	25
- AURREKO URTEETAKO ALDEA ZERBITZUAREN ERABILERAN	25
- IRAKASLEEN FORMAKUNTZEN EBALUAZIO-ADIERAZLEAK	26
- BERDINDU ZERBITZU ERABILI DUTEN IRAKASLE GUZTIEN DATUAK	26
FAMILIEN FORMAKUNTZAK	27
IKASLEEN FORMAKUNTZAK	27
- IKASLEEN TAILER KOPURUA	27
- IKASLE KOPURUA 2020	28
- ARABA IKASLE KOPURUA	28
- BIZKAIA IKASLE KOPURUA	28
- GIPIZKOA IKASLE KOPURUA	28
- LEHEN HEZKUNTZAKO BALORAZIOA	29
- DBH-KO BALORAZIOA	31
ONDORIOAK	33
BESTE INTERES-TALDE BATZUK	34



## BERDINDU ZERBITZUA

ARRETA PERTSONALA



## SARRERA

---

Memoria hau Berdindu Zerbitzuak ibilbide berria hasi zuenetik (2020ko martxoa) urtean behin egiten duen lehen memoria da. Aurreko urteetako txostenak aintzat hartzen baditugu, dokumentu honen datuak ezhoikoak dira hainbat faktoreen ondorioz. Hona hemen faktore horiek:

- Aurreko urteetan urte naturalarekin batera egindako memorietan ez bezala, memoria honek martxoa eta Abendua bitarteko aldia hartzen du. Hori horrela da hilabete horretan (2020ko martxoan) hasi zelako kontratazio hau.
- Hiru lurreko historikoetako arreta pertsonalei buruzko informazioa bateratu duen lehenengo memoria da. Horrek eragotzi egiten du, aurreko memorietan egin zen bezala, aurreko urteekin konparaziozko balorazioak egitea, horretarako oinarri erreferentzialik ez dagoelako.
- Berdindu Zerbitzuaren egoera berriak, aurreko kudeaketa-formulatik aldendu izana eta herritarren imaginarioan oso gutxi agertzen denez, erantzundako eskaeren kopuruak behera egitea eragin du.
- Memoria hau COVID-19k sortutako osasun-egoeratik markatutako epealdi bati dagokio. Horrek, aurreko puntuarekin batera, eragin nabarmena izan du eskarien kopuruan. Jaitsiera hori funtsezkoa da, eta erlatibizatu egiten ditu dokumentu honetatik atera daitezkeen ondorioak. Gure ustez, osasun-larrialdiko egoera hori dela eta, eta zerbitzua erabat zabaldua edo egonkortuta egon gabe, gerta liteke zerbitzua eskatu zezaketen persona askok ez egitea.
- Osasun-egoerak ez ditu soilik kuantitatiboki baldintzatu txosten honetako datuak, kualitatiboki ere baldintzatu ditu. Aurreko txostenetan jasotako eskarien tipologiarekin konparatuz urte honetan jasotako eskaera batzuk nahiko ezberdinak izan bait dira konfinamendu-egoeraren eraginez.
- Amaitzeko, zehaztu behar da txosten honen datuak, atal batzuetan, egindako arreta guztietan oinarrituta daudela (kontsulta berriak eta jarraipen-arretak), eta gainerakoak kontsulta berriei bakarrik dagozkiela. Azken irizpide hori hartu da, urtean zehar zerbitzura jo duten erabiltzaileen ikuspegi errealista lortzeko modurik onena dela iritzita.




## ARRETEEN LABURPENA

	KONTSULTAK	%
<b>GUZTIRA</b>	528	100
Lehenengo kontsulta	277	52
Jarraipena	251	48
<b>LEHENENGO KONTSULTA</b>		
Pertsonak	176	64
Erakundeak	101	36
	<b>277</b>	<b>100</b>
Emakumea	67	38
Gizona	58	33
Gurasoak	30	17
Transgeneroa	21	12
	<b>176</b>	<b>100</b>
< 16 urte	4	2
16/25	64	36
26/35	39	22
36/45	35	20
46/55	23	13
>55	6	4
Er. gabe	5	3
	<b>176</b>	<b>100</b>
Araba	73	26
Gipuzkoa	87	31
Bizkaia	86	31
Beste batzuk	24	9
Er. gabe	7	3
	<b>277</b>	<b>100</b>
Aurrez aurrekoa	36	13
Telefonikoa	162	59
Posta E.	72	26
Beste batzuk	6	2
Er. gabe	1	0
	<b>277</b>	<b>100</b>



## ERABILTZAILEEN BATURA OSOARI EMANDAKO ARRETA

### URTEAN BEHINGO ARRETA



Guztira, 528 eskari erantzun ditu Berdindu Zerbitzuak urte honetan, ia erdibana, lehen aldiz harremanetan jartzen diren erabiltzaileen eta jarraipen-arreten artean banatuta. Azken kategoria horretan sartzen dira momentu ezberdinetan (urte naturala) jarraipena behar izan duten pertsonak. Hori hainbat arrazoiengatik gertatu izan da:


1. Eskariaren kudeaketak izapide jakin batzuk egitea edo informazioa bilatzea eskatzen duelako.
2. Pertsona berak une desberdinetan egindako eskaerak.
3. Pertsonaren oreka emozional egokiak hala eskatzen duelako.
4. Hizkuntza-aniztasunari lotutako kontuak, itzulpena behar izanez gero, denbora gehiago behar izatea eragiten dutenak.

Oro har, erantzundako eskaeren kopuruak gora egin du urtean zehar. Uste dugu egungo "egonkortasunak" (COVID-19), zerbitzuaren publizitateak eta ikasturtearen hasierak eskaeren pixkanakako igoera eragin dutela.




## ERABILTZAILE MOTAREN ARABERAKO ARRETA

Hurrengo ataletan jasoko diren datuak kalkulatzeko, urte honetan lehen aldiz zerbitzuan sartu diren pertsonak edo erakundeak hartuko dira kontuan (277 arreta). Estatistika-irizpideek horrela egitera garamatzate, baina gogorazi nahi dugu kontsulta berriak zerbitzuak eskaintzen dituen arreta guztien % 52a baino ez direla.



PERTSONAK	176
ERAKUNDEAK	101



EMAKUMEA	67	GURASOAK	30
GIZONA	58	TRANSGENEROA	21

Ikus daitekeenez, kontsulta gehienak norbanakoek egin dituzte (% 64), eta % 36 erakundeei dagozkie.



**Erakundeak.**- tarte honetan zerbitzuarekin harremanetan jarri diren erakundeen jarduera-eremua nahiko heterogeneoa izan da. Aurreko urteko informea kontuan harturik, zerbitzura hurbildu diren ikastetxe kopuruaren igoera nabarmena aipatu beharrezkoa da. Izan ere, ikasturtearen hasieragatik izan da, baita osasun egoeraren nolabaiteko "normalizazioa" egon delako ere. Eskolen gehiengo eskaera, kasu zehatzetarako aholkularitza (sexu eta genero identitatearekin lotutakoak, batik bat), eta irakasleentzako formakuntzak izan dira.

Bestelako erakundeen artean, talde nahiko heterogeneoa, hurrengo hauek nabarmentzan dira:

1. Zerbitzuaren erabiltzaileei arreta ematearekin lotutako erakundeak, esaterako: Gurutze Gorria, Gizarte Zerbitzuak, Gautena, Udaltzaingoa, Naizen, Errespetuz, Gehitu...
2. Sentsibilizazio-ekimenetan (hitzaldiak) parte hartzea edo beste proiektu pribatu batzuetan laguntzea eskatzen duten hainbat erakunde. Azken maila horretan, eskaera berrienak honako hauek izan ziren:
  - *Mugarik gabeko ekonomistek* LGTBI+ eskubideak ardatz dituen argitalpen batean parte hartzeko egindako lankidetzaren eskaera, ekonomiaren eta enpresen ikuspegitik.
  - *Mugen Gaietik* elkarteak beste erakunde batzuekin batera UKS (Unibertsitate Kritikoa Sarea) sareak antolatutako ekimen batean parte hartzeko planteatutakoa. Ekimen horren helburua unibertsitatearen eta sexu- eta genero-aniztasunean oinarritzen den gizarte-sarearen arteko sinergiak sortzea da.
3. Batez ere Berdinduren aurkezpen mediatikoan eta data esanguratsuei buruzko informazio eskaeretan zentratu diren komunikabideak.

**Pertsonak.**- Pertsonen dagokienez, nolabaiteko gorakada nabari daiteke emakumeek egindako eskaeretan, gizonen dagokienez. Argitu behar dugu kategoria horietan gizon eta emakume guztiak sartzen direla, pertsona transexuala edo zisexuala den alde batera utzita Aitzitik, "transgenero" kategoriak, gizon edo emakume gisa identifikatzen ez diren pertsonak dira, identitate alternatiboetan kokatzen diren pertsonak hartzen ditu barne (ez-binarioak eta Queer, besteak beste). Honelako kasu askotan, pertsona ez-binarioak izaten dira zerbitzura hurbiltzen direnak, gizon-emakume binomio zorrotzaren ondorioz beren sexu edo/eta genero identitatean sortzen diren gatazka pertsonal, familiar edota kanpo- gatazkak direla eta. Argitu nahi dugu, aurrerantzean, testuan zehar "trans" termino generikoa erabiliko dugula termino inklusibo gisa, beren burua emakume eta gizon transexualtzat jotzen duten pertsonak zein gizon eta emakume binomioaren ordezkotzat egiten duten pertsonak barne hartzen dituen.


Azkenik, gurasoak egindako eskaeren %17a aipatu behar da, iazko ehuneko baina gehio. Ia guztiak euren haur eta nerabeen sexu edo/eta genero identitateari lotutako eskariak izan dira. Planteatutako egoera nola kudeatzeko informazio eta aholkularitza-eskaerak dira, baita laguntza-eskaerak egoera horrek sortutako ez-jakintasan eta antsietatearen aurrean. Esan beharra dago, kategoria hau Gurasoak deitzen den arren, tutore legalak eta adindutako laguntzaileak ere barne





sartzen direla. Gainera, nabarmentzen dugu, gehiengoak, ia guztiak, emakumezkoak jarraitzen dutela izaten harremanetan jartzen direnak edo laguntzaile moduan datozenak.

## ADINAREN ARABERAKO ARRETA



<16	4	46-55	23
16-25	64	> 55	6
26-35	39	ER. GABE	5
36-45	35		

Ikus daitekeenez, 16-25 eta 26-35 urteko tarteeak gehiengo arretak biltzen dituzte. Eskolako lanei buruzko informazio-eskaera oso ohikoa izaten da lehen tartean, baina COVID-19k definitutako egungo egoerak eskaera horien gutxitzea ekarri du. Beste aldetik, adin-tarte honetan, kontsulta-eredu zehatz bat da nabaria, bai gizon baita emakume trans-etan, prozesu sozialei eta hormanazio eta kirurgia-prozesuei lotutako zalantzak, hala genitaletakoak nola mastektomiakoak ere. Baita, identitate ez-binarioaren bizipenari lotutako gatazka pertsonal eta familiarrak ere. Aurrekoekin batera, orientazio sexual eta sexu edo/eta genero identitatearekin lotutako zalantzak nabarmentzen dira, baita bereizkeria eta delitu gertaerak, esaterako (ikusi *kontsulta motaren araberako arreta*).


Grafiko honetan jasota ez badago ere, soilik erabiltzaile berriei buruzkoa delako, esan beharrekoa da jarraipen-arreta ugari eman direla <16 adin-tarteko trans gazteei. Kontsulta horien arrazoi nagusienak gorputzaren onarpen eza izan dira, eskolan baita familian jasandako transfobia, dokumentazio aldaketarako informazioa, isolamendu soziala, harremanak izateko zailtasunak eta, batzuetan, suizidio saiakerak.

Amaitzeko, adinak gora egin ahala eskariak pixkanaka behera egiten dutela ikusten dugu. Denboran zehar errepikatzen den tonika orokor bat da. Helduen edo adinekoen kontsulta-arrazoi ohikoenei dagokienez, eraso bat jasan izana, berdinen arteko harreman-zirkuluak aurkitzea edo ingurune hurbileko eta ondorengoetako sexualitatearen bizipenari buruzko kezak dira. Kontsulta hauek



ohikoenak badira ere, adinduen eskaeren artean, gurasoek haien seme-alabei buruz egindako eskaerak biltzen dira, batiz bat sexu edo/eta genero nortasunarekin lotutakoak.

## JATORRIAREN ARABERAKO ARRETA




%16 dira migratzaileei egindako arretak. Maila honetan, honako hauek nabarmentzen ditugu:

1. Asilo-eskaerei lotutako arretak: elkarrizketa informatiboak eta laguntza emozionalekoak; laguntza psikosozialaren erakundeekin koordinatzea (CEAR, Gurutze Gorria); espediente pertsonala indartzeko laguntza-txostenak egitea; laguntza baliabide-eskasiaren aurrean (ekonomikoa/ostatua).
2. Diskriminazioa jasan duten eta jasaten duten pertsonak, diskriminazio bikoitzaren biktimak, batetik, migratzailea izateagatik, eta, bestetik, LGTBI+ kolektiboko kideak izateagatik.
3. Beldur barik eta normalitate osoz mintzatzeko gune seguru baten bila dauden pertsonak.
4. Prostituzioan diharduten trans pertsonak. Kolektibo hori oso zigortuta dago gaur egungo osasun-egoeraren ondorioz, diru-sarreraren iturria nabarmen murriztu delako.

Azken batean, arrazoi batengatik edo besteagatik, zaugarritasun berezian dauden pertsonak dira. Ez da harriztekoa eskaria lotuta egotea oinarritzko bizi-baliabideen gabeziarekin edo balizko galerarekin (etxebizitza, baliabide ekonomikoak...); Zerbitzuaren eskumena argi eta garbi gainditzen duten egoerak dira, horrek ez du esan nahi, ordea, eskatzaileari babesa emateari utzi behar diogunik, eta beharrezko deribazio-bideak erraztu behar dizkiogunik.


## PROBINTZIAREN ARABERAKO ARRETA



ARABA	73	BESTE BATZUK	24
GIPUZKOA	87	ER. GABE	7
BIZKAIA	86		

Hiru probintzietatik datozen eskaeren artean antzekotasunak ikus ditzazkegu, espero zitekeena gaindituz, aurreko urteetako esperientzian oinarrituta, desfasea handiagoa baitzen. Honako hau, azalpen erraz bat izan dezake, alde batetik, COVID-19k suposatu duen osasun egoeratik, eta beste aldetik, Berdindu zerbitzuaren ibilbide berri hontan, hiru lurraldeak batera puntu beretik abiatu direla publiko orokorrak ezagutzerako orduan. Lehen hau ez zen horrela ematen, Berdindu zerbitzua elkarre ezberdinen egoitzetatik ematen baitzen, eta publikoak horiei buruz zuen ezagutzak, jendea kontsultak egitera hurbiltzea errazten zuen.

## KONTSULTA-MOTAREN ARABERAKO ARRETA





SEXU-GENERO IDENTITATEA	226	SENTSIBILIZAZIO SOZIALA	38
JURIDIKOA	79	HEZKUNTZA	71
SEXU OSASUNA	59	SEXU ORIENTAZIO	45
SOZIALIZAZIO SAREAK	40	LGTBIFOBIA	32

Atal honetan, besteetan ez bezala, kontuan hartuko ditugu urtean zehar jasotako eskari guztiak, eta, beraz, bertan egindako jarraipen-arreta guztiak.

Aurreko ataletan zerbitzuan jasotako eskaeren tipologiari buruzko zertzelada laburrak eman badira ere, atal honetan xehetasun handiagoz aztertuko ditugu. Batez ere, garrantzitsua iruditzen zaigulako erabiltzaileek izan dituzten beharrak ulertzerako orduan.

Lehenik eta behin, *sexu edo/eta genero identitatearen* kategorian nabarmen bat ikus dezakegu, eta, ondoren, gorakada handia *Hezkuntza* kategorian. Bietan geldituko gara:

**Sexu edo/eta genero identitatea.**- Kategoria ohikoena da, batez ere mutil trans gazteen artean (18-25), eta kontsulta mota hauek biltzen ditu:

1. Hormonazioari eta kirurgia-prozesuie buruzko informazioa (ezaugarriak eta sarbideak), eta bertan sortutako antsietate eta arazoei aurre egiteko laguntza, edo kirurgiaren osteko konplikazioek eragindako ondoeza.
2. Dokumentu-aldaketei / dokumentazio iragankorrari buruzko informazioa edo honekin lotutako arazoak. Sarritan eskatu izan dute, familiek, izena eta sexu aipamena aldatzeko erregistro zibilean eta Eusko Jaurlaritzaren dokumentazio iragankorraren txartelean. Eskaera askok, ikasturtearen hasiera dela eta, ikastola eta unibertsitateen plataforma online desberdinetan izen aldaketa arazoekin lotutakoak.
3. Guraso, tutoreen eta ikastolen eskaerak, seme-alaben edo ikasleen sexu edo/eta genero identitateari buruzko ziurgabetasuna dela eta, aholkularitza.
4. Euren identitatei buruzko zalantzak, binarismoaren ordezkotzat kokatzeko zailtasunaren aurrean. Hainbat kontsultek eskatu dute hori, euren behar eta/edo sentimenduekin bat ez datozen identitateekin identifikatzeko beharrak bultzatuta. Laguntza eta aholkularitza ematea, bai familian, bai gertuko hainbat eremutan, mehatxuen eta suizidio-saiakeren aurrean.
5. Aholkularitza eta laguntza ematea eskatzaileen senitartekoei, lagunek eta hurbileko inguruneek sexu edo/eta genero identitatea onartzeko dituzten arazoen aurrean.
6. Laguntza emozionala zalantza eta/edo gatazka pertsonal eta harremanezkoengatik.
7. Gorputzaren autoestimuekin eta norberaren gorputza onartzearekin lotutako zailtasunak. Adin guztietan gertatzen da, baina, batez ere, nerabe aurrekoetan eta nerabeetan.



Ikus daitekeenez, kategoria heterogeneoa da. Batzuetan, erabiltzaileak eskatu izan du bere nortasun bera duen beste pertsona batek artatzea, baina ez da hiru lurraldeetan horrela izan. Bizkaian, eskaera hori ia kasu guztietan jaso da, baina ez da horrela izan Araban eta Gipuzkoan, aurten ez da halako eskaerarik jaso. Hala ere, egokitzat jo den kasuetan aukera hori eskaini da.

**Hezkuntza.**- Gure ustez, ikasturtearen hasieran eta osasun-egoeraren bilakaeran nabarmen handitu den kategoria izan da. Hezkuntzaren arloan, eskari errepikakorrenak honako hauek dira:

1. Irakasleek kasu zehatzei aurre egiteko egindako aholkularitza-eskaerak.
2. Irakasleentzako eta ikasleentzako prestakuntza eta tailerrak eskatzea sexu- eta genero-aniztasunaren arloan.
3. Kolektiboari buruzko informazioa eskatzen duten gazteak, eskolako, unibertsitateko eta abarreko lanei begira.

Argitu behar da aholkularitza-eskaerak eta tailerren eskaerak eskola-arretaren arlora bideratzen direla, behar bezala zehaztu eta kudeatzeko.

**Juridikoa.**- Kategoria honetan, funtsean, honako hauei lotutako eskaerak sartzen dira:

1. Dokumentu-aldaketa (trans pertsonak) .- dauden aukerei buruzko informazioa eta prozesuko konplikazioei ematen zaien laguntza dira atal honetako eskaera ohikoenak (Oharra: eskaera horiek *sexu- eta/edo genero-identitatea* kategorian ere sartzen diren arren. hemen ere sartzen da).

*Konplikazioei* dagokienez, izena aldatzeko orduan erregistro batzuetan arazoak izan dituzten pertsonen eskaerak azpimarratu nahi ditugu. Eskatzen zitzaizkien betekizunetan oinarrituta, antzematen dugu haietako batzuk ez daudela jakinaren gainean trans pertsoneri dagozkien azken berrikuntzez (Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren jarraibidea).

2. Asilo-eskatzailak. Eskabide-prozesua hasteko informazioa eta laguntza behar duten pertsonak dira, espedientea indartzeko laguntza-txostenak egin behar dituzte, bai eta LGTBI+ pertsona gisa duten egoerari lotutako harreman- eta laguntza-zirkulua ere.
3. Emakume lesbianen bikoteek beren seme-alaben seme-alabatasunari buruz egindako informazio-eskaerak (amatasun partekatua izateko aukera, horretarako baldintzak, etab.) edo, hala badagokio, prozesuan sortutako zailtasunen aurrean laguntza eskatzea, aholkularitza edo kasuak salatzea (batez ere haurrak epaitegietan erregistratzean sortutako zailtasun anitzen inguruan). Kasu gehienetan, ama izan nahi hutsagatik jasaten duten ahultasun-egoeratik eratorritako laguntza emozionalekin lagunduta.

**Osasuna.**- Pertsona askok oraindik ere murriztu egiten dute osasun sexualari buruzko kezka osasun genitalera. Ulertuta sexu-osasuna ez dela gaixotasunik eta minik eza, ongizate psikosoziala baizik, kategoria honetan sartzen dugu gorputzarekin eta emozioekin zerikusia duen guztia.



Atal honetan jasotako eskari gehienak trans pertsonen osasun-prozesuei buruzkoak dira. Aurreko atalean bezala, sexu- eta/edo genero-identitatea kategorian ere puntuatu dira.

1. Emakume eta gizon transak eta/edo gurasoek hormona-tratamenduei eta/edo hormona-blokeatzaileei buruz egindako eskaerak.
2. Emakume eta gizon transek egindako eskaerak kirurgia genitalei buruz, bai eta alde aurretik egin dituzten kirurgietan lortutako emaitzekin bat ez datozen egoerei buruz ere.
3. Hainbat osasun-eremutan jasotako tratuari buruzko eskaerak. Horietan, trans esperientziak jasotzen dira, eta adierazten dute oso informazio gutxi jaso dutela ebakuntza egin aurretik eta ondoren. Era berean, prozesu kirurgikoetan eta errekupeazio-prozesuetan tratatzen dituzten ukimen txikiaren berri ematen dute.
4. Osasuna eta prebentzioa.- STIren bat kutsa daitekeen beldur edo ziurgabetasunari buruzko kontsultak (GIB eta PHB, funtsean) edo, hala badagokio, praktika jakin baten arrisku-potentzialari buruzkoak.
5. Ongizate emozionala.- depresioarekin, autoestimuaekin eta antsietatearen kudeaketarekin lotutako kontsultak.

**Sozializazio sareak.**- Talde hau osatzen duten eskaeren artean honako hauek daude:

1. Zerbitzuari buruzko informazioa eskatzea: zer den, zer jardura dituen, berdinen taldeak dauden edo ez jakitea.
2. Nabarmena da gurea bezalako jardura eta espazio seguruen eskaria, antzeko baldintzak dituzten pertsonak elkartzeko. Urtean zehar bertaratu diren pertsona askok adierazten dute ez dutela espaziorik nahi bezala adierazteko, entzunak izateko edo gustura sentitzeko, eta hori egin ahal izateko gurea bezalako espazioen beharra nabarmentzen dute. Egungo osasun-egoerak, murrizketekin batera, murriztu egiten ditu topaketak egiteko aukerak; horregatik, pertsona askok hainbat LGTB+ ekitaldi aurrera eraman ahal izateko espazioa eskatzen digute, hala nola bilerak, erakusketak, proiektzioak, zine Forumak, etab. egiteko. Sozializatzeko eta gustura moldatzeko espazio seguru bat izateko helburuarekin. Profilak askotarikoak dira; alde batetik, 40 urtetik gorako pertsonen sexualitatea libreago bizi nahi dute, kanpoko eta/edo barneko ukapenak jasan ondoren. Bestalde, ezarri zaizkien genero-mugak zabaldu nahi dituzten eta garapen horretan taldean tresna indartsua aurkitzen duten 40 urtetik beherakoak.
3. Gainera, beste kategoria heterogeneo bat egongo litzateke, eta bertan LGTB+ aisialdirako eta topaketetarako lokalei buruz, lurraldeetan jarduten duten gizarte-kolektiboek buruz eta data espezifikoen egindako jardueri buruzko informazioa jasoko litzateke besteak beste.

**Sentsibilizazio soziala.**- Talde honetan, funtsean, komunikabideen eskaerak sartzen dira, ia erabat zerbitzuaren aurkezpenari eta dibulgazioari buruzkoak. Gainera, behin eta berriz eskatu izan ohi dira



kolektiboari buruzko informazioak edo iritziak, batez ere data edo gertaera esanguratsuen ingurukoak.

Era berean, multzo heterogeneoa dago, eta hainbat erakunderen ekimenetan parte hartzeko lankidetzak-eskaerak biltzen ditu. Erakunde horiek, normalean, hitzaldi-formatuan, kolektiboaren errealitatea herritarren sektore desberdinetara hurbildu nahi dute. Proiektu pertsonaletan parte hartzea, sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako erakusketen eskaintza, argitalpenetan edo ikerketa-ekimenetan kolaboratzeko eskaera inizatibak, beste askoren artean esanguratsuenak.

**Sexu orientazioa.**- Norbere burua homosexualtzat jotzeko aukeraren aurrean edo familiaren ulermen/onarpen faltaren inguruan sortutako zalantzak, gatazkak eta nolabaiteko beldurrak dira ia eskaera gehienak. Lehenengo kasuan, sexu bereko pertsonenganako erakarpenak, bizitzako aldi jakin batzuetan maiz eta logikoki, kolokatu eta beldurtzen dituen gazteei buruz hitz egiten dugu. Bigarren kasuari dagokionez, esan behar dago nagusiki genero identitatearekin lotutako egoerak direla, nahiz eta konfinamendu-aldiak berriro aktibatu dituen sexu-orientazioarekin lotutako familia-egoera gatazkatsuak.

Atal honetan daude, halaber, asiloa eskatzeko prozesuan dauden pertsonen kasuak, bulegoetara jotzen dutenak beren sexu-orientazioak modu seguruan eta epaiketarik gabe adierazteko eta/edo berresteko espazioen bila.

**LGTBI+fobia.**- Eskaerak lotura dute honako hauekin:

1. Sexu-orientazioa eta sexu edo/eta genero identitatea onartzearekin lotutako familia-gatazkak, lehenengo sei-hilekoan konfinamendu-egoera desberdinak areagotuta. Kontuan izan behar da pertsona askok onartzen ez dituzten pertsonekin konfinatuta egon behar izan dutela, askotan beren familiekin, eta berrarmarizatu behar izan dutela.
2. Eraso LGTBI+fobikoak.- tipologia ohikoena ez bada ere, badira eraso puntualak kudeatzeko jasotzen ditugun arretak, askotan egiturazkotzat jotzen ditugunak. Horietako batzuk hurbilen dauden inguruneetara lotuta daude zuzenean; besteak beste, familiari, ikasle-inguruneari, lanari eta abarri. Besteak, berriz, egitura-inguruneetara lotuta daude, hala nola unibertsitateei, osasun-zentroei, institutuei, gizarte-etxeei eta abarrei, non oraindik ere LGTBI+ gaiei buruzko ezjakintasun orokorra nabaritzen baita.
3. Sexu-orientazioa eta/edo sexu edo/eta genero identitateagatik eragindako diskriminazio-egoerak: Aisialdi-lokaletan sartzea ukatzea edo mesfidantza eta merkataritza-establezimenduetan egoera pertsonalean oinarritutako ustezko diskriminazioa dira, besteak beste, aurten bete diren eskariak.

## BESTE ESKAERA GARRANTZITSU BATZUK

---


Atal honetan, beren ezaugarriengatik aurreko atalean markatu ditugun kontsulta-tipologiaren barne dauden eta aldi berean atal bakar batean katalogatzea zailak eta bereziki garrantzitsuak iruditzen zaizkigun eskaerak jasotzen ditugu.





**Osasun arloko langileen eskaerak.**- Urteko bigarren seihilekoan osasun arloko hainbat langileren eskaerak jaso ditugu. Eskaera horietan, LGTBI+ gaiet buruz duten informazio eskasa eta horrek euren lanaren kalitatean eragiten dituen zailtasunak aipatu dituzte. Bulegoetan entzuten ditugun kontakizunetan ere nabari da eta zailtasun horien aurrean, eskatzen dizkiguten gauzen artean; batetik, osasun-arloa osatzen duten alderdi guztiekin lankidetzan aritzeko eta/edo prestatzeko aukera izatea eta, bestetik, gure zerbitzuari buruzko informazioa osasun-zentroetan ikusgai egotea da, batiz bat ospitale eta abarretako eremu komunetan. Azken finean, prestakuntza eta informazio espezifikoarekin, erraz kudea daitezkeen, zaurgarritasun-egoera ugari sahiestu daitezkeelako.

## KONTSULTA KOMUNIKABIDEA



AURREZ AURREKOA	36	BESTE BATZUK	6
TELEFONIKOA	162	ER. GABE	1
POSTA E.	72		

*Telefonoz* eginikoak (% 59) eta *posta elektronikoa* (% 26) dira kategoria nagusiak, eta alde nabarmena dago bien artean. Aurrez aurreko arretak behera egin dute, eta agerikoa dirudi hori, egungo osasun-egoera dela eta. Aldez aurreko hitzordua eskatzeak ere eragina izan du maila horretan. Bideokonferentzia bidezko arreta-kasu batzuetan, arindu egin da, neurri batean, arazo hori, baina ez da nahikoa izan. Argi dago aurrez aurreko arretak asko errazten duela komunikazioa eta kontsultak eraginkorragoak izatea eragiten duela, eskaera asko modu eraginkorrean konponduz eta arreta hobea bermatuz espazio intimo eta seguru baten bidez.

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago, zerbitzuaren bulegoak berriki ireki izanak ere baldintzatu dituela aurrez aurreko arretak. Hala eta guztiz ere, esan behar dugu, egoera denboran zehar "normalizatzen" joan den heinean, maila horretan nolabaiteko berreskuratzea ikusi dela.

*Posta elektronikoa* ere kaltetua izan da aldi honetan. Zerbitzuaren kudeaketan izan berri diren aldaketek helbide elektronikoa berriak eta hedapen-plataforma berriak erabiltzea ekarri dute, eta horrek eragina izan dezake maila horretan.





Amaitzeko, *Beste batzuen* azken atala aipatu behar da, funtsean bideokonferentzien, WhatsAppen eta sare sozialen bidez erantzundako eskaerak jasotzen dituen. Batez ere gazteek erabiltzen dituzten bideak dira.

## ZERBITZUA EZAGUTZEKO MODUA



Kasuen erdietan baino gehiagotan, Berdindu zerbitzua erabiltzeko aukera eman duten erreferentziak orain arte zerbitzua kudeatzen zuten elkarten aurretiko ezagutzarekin lotuta daude. Agerikoa da horiek urtean zehar eskariak eta erabiltzaileak bideratzeko iturri garrantzitsua izan direla, eta etorkizunean ere hala izaten jarraituko dutela. Izan ere, kolektiboek beren lurraldeetan duten errotze sozial handiak herritarrentzat erreferente irisgarri eta lehentasunezko bihurtzen bait ditu gaur egun.

Nabarmena da ere, gora egin duela zerbitzura zuzenean jotzen duten pertsonen kopurua. Orain arte egindako hedapen-ekimenek eta etorkizunera begira indartu beharko liratekeen ekimenek garrantzi handia izan dute maila horretan.



## FAMILIEI LAGUNTZEKO TALDEAK

Jarduera hau 1.1.1 atalean kokatzen da. Arreta orokorrak LGTBI+ pertsoneri eta hurbilekoei, kontratazio honen pleru teknikoetan jasota.

Esan behar dugu urtean zehar bizi izandako egoera bereziak ere baldintzatu duela atal hau. Kontratazio hau martxoan hasi zenez, osasun-egoerak, dagozkion muga logistikoekin, bulegoak martxan jartzeko prozesua ekaina arte atzeratzera behartu zuen. Gertaera horrek, udaren berehalakotasunarekin batera, denbora asko galdu zuen, eta, jakina, horrek baldintzatu zuen jarduera hau abian jartzea.

Lehen taldea, hiru lurralde historikoetan garatutakoa urriaren 24an, larunbatean, Gasteizen eta Bilbon, eta urriaren 26an, astelehenean, Donostian, egiteko programatu zen. Horretarako, aurretiazko lan hauek egin ziren:

- Ekitaldiari buruzko informazio-kartela egitea, bulegoetako beirategian jartzea eta posta elektronikoaren, sare sozialen eta erakundeen WhatsAppeko taldeen bidez banatzea.
- Zerbitzura jo zuten familia berriei ekimenaren berri ematea.
- Balizko familia hartzaileen berrikuspina eta bahea, bulegoen alde aurreko datu-baseen bidez.
- Haiekin telefono bidez zuzenean harremanetan jartzea.

Zoritxarrez, taldea ez zen lurralde bakar batean ere gauzatu. Maila horretan eragina izan zuten elementuak desberdinak izan ziren:

- Osasun-egoera: talde-bileretako parte-hartzaileen kopuruaren muga ofiziala; kutsatzeko aukeraren inguruko beldur pertsonalak; konfinamendu perimetralak...
- Topaketa larunbatean, egun ez oso erosoan, bi lurraldetan planteatu izanak zaildu egin zuen hasiera batean interesa agertu zuten pertsona batzuk bertaratzea.
- Esan behar da kasu batzuetan seme-alabek planteatutako egoeraren hasieran zeuden familiak zirela. Adingabearen bizipenaren esanahiari buruzko ziurgabetasunak eta orain arte susmatu gabeko agertoki batek eragindako hasierako beldur eta shockak halako talde batean parte hartzeko mesfidantza sortu zuten.

Elementu horiek guztiek baldintzatu zuten, beraz, zenbait familiak interesa erakutsi arren, taldeek ez egitea. Nolanahi ere, azpimarratu behar da kasu guztietan familia-talde bakoitzak planteatutako arazoei aurre egiteko familia-laguntza pertsonalizatua egin dela. Hona hemen horietako batzuk:

- Adingabearen seme-alabatasuna egiteko zailtasunak dituzten emakumeen bikotea. Prozesuan banakako orientabide eta jarraipenen bidez laguntzeaz gain, beste bikote batekin harremanetan jarri ziren, beren esperientziak partekatu eta ezagutu zitzaizkien.
- Ziurgabetasuna eta zalantzak seme-alaben sexu- eta/edo genero-identitatearen aurrean.



- Adingabe transexualekiko harremana kudeatzeko moduari buruzko orientazioa.
- Seme-alabentzat erreferentzia pertsonal baliagarria izan daitezkeen talde edo gazteei buruzko informazioa eskatzea.
- Sexu-berresleipeneko prozesuan sartzeko aukerei eta bideei buruzko informazioa.
- Ondozari aurre egiteko laguntza, eta, batzuetan, adingabeen barne-gatazka (suizidio-mehatxuak) eta familia-dinamikan duen eragina.

Familientzako bigarren taldea hiru lurraldeetan egingo da datorren ostiralean, 2021eko urtarrilaren 29an.



## BERDINDU ZERBITZURAKO GOMENDIOAK ETA HOBEKUNTZA

- Aurtengo egoera zehatzaren ondorioz, arreak zitekeen moduan, eskaeren beherakada nabarmen bat antzeman daiteke. Hala ere, azken hilabeteetan eman de osasun egoeraren hobekuntzak, zerbitzuaren finkapenak eta herritarren ezagutzak, eskaeren igoera mailakatu bat ekarri dute. Garrantzitsua iruditzen zaigu zerbitzua herritarren artean eta herritarrentzat zabaltzeko kanpainak abian jartzea, bai eta norbanakoak bulegoetara erakartzeko abiatzea ere. Maila honetan, honako hauek nabarmentzen ditugu:
  - Difusioa, komunikazio-kanpaina desberdinen bidez. Biltzen ditugun datuetan oinarrituta, hiru lurraldeetako funtsezko lekuetan ardaztuta.
  - Bulegoak ikusgarriagoak izatea, eta arreta eta prestakuntzez gain, bestelako jarduerak ere egin ahal izatea. Bulegoak LGBTI+ pertsonen arteko topagune eta ahalduzko-gune izan daitezten; izan ere, pertsona horiek adierazi dute ez dutela tokirik.
  - Komunikazio-bideak zabaltzea biztanleriaren sektore zabalago batera iristeko.
- EAEko hiriburuetan presentzia iraunkorra handia da, eta espero dugu, aurreko neurrietako batzuk ezarrita, zerbitzua erabiltzen duten pertsonen kopurua handitzea.
- Erregistro-kategoria batzuen egokitzapenak (prozesu horretan gaude gaur egun) eragin positiboa izango du kontsultei buruzko informazio zehatzagoa izateko orduan. Etorkizuneko memoriei begira, pertsonen tipologiai eta egindako eskaerei buruzko kategoriak ahalik eta zehatzak izan daitezten saiatuko gara, zerbitzura hurbiltzen direnen nortasun-errealitatea eta beharrak zehatzago islatzeko. Horri esker, LGBTI+ kolektiboaren barruan dauden kasuistika aniztasun osoan ikusaraziko dira, eta zerbitzu honetatik erantzun ditzakegun premien argazki sinesgarriagoa izango dugu.
- Memoriei dagokienez, eta denboran zehar erabiltzaileen benetako aldaketak zehaztu ahal izateko (adina, sexua), komenigarria litzateke, txosten honetan egin dugun bezala, urtean lehen aldiz kontsultatzen duten erabiltzaile guztiei buruzko datuak aztertzea. Orain arte egiten zen bezala, datuak batera "berri" eta "jarraipen" gisa hartzeak datuak indargabetzen ditu eta maila horretan argazki errealista bat lortzea zailtzen du.

Horrek ez du esan nahi, noski, atal batzuk eskaintako arreta osoan oinarritu behar direnik, arreta horiek berriak edo jarraipenekoak izanda. Ikuspegi hori aurrekoa bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da; izan ere, gure ustez, zerbitzuaren lana datu estatistikoetatik haratago doa, eta merezi duten neurrian baloratu eta azpimarratu behar diren jarduerak integratzen ditu.
- Komenigarria litzateke, orain arte egin den bezala, elkarrekin lan egiteko moduari eustea, Berdindu zerbitzua osatzen duten elementu guztiak, lurralde guztietan koordinatzeak ahalegin handia eskatzen duen arren.



## BERDINDU ZERBITZUA

ESKOLA ARRETA



## SARRERA

---

COVID-19aren agerpenaren ondorioz, azken aldiko osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisirik garrantzitsuena gertatu da. Gauzak horrela, agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu egin dira mundu osoan. Pandemiak eragin desberdina izan du hainbat sektoretan, hala nola hezkuntza-sisteman. Gainera, datuen arabera, aldaketa sozialera eta sentsibilizaziora bideratutako zerbitzuek arrisku handiagoa dute krisi honen ondorio negatiboen aurrean. Hori dela eta, premiazkoa da berrikuntza eta kontzientziazio ikuspegia txertatuko duten neurriak hartzea hainbat arlo desberdinetan, hala nola sexu-aniztasunaren zabalkundea eta kontzientziazioa ardatz duten proposamenak. Izan ere, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta LGBTBI kolektiboaren eskubideen erabileran eta berdintasunerako bidean atzera egitea ekar ditzake.

Testuinguru honetan, 2020 urteko memoria ulertzeko aintzat hartu behar dira hainbat faktore. Hasteko, kontratua indarrean hasi eta hamabost egunetara ikastetxe guztiak itxi egin zirela koronabirusaren eraginagatik. Epe labur baterako zirudiena udako oporroaldira arteko etena bihurtu zen, horrek suposatu zuen guztiarekin (eskolak on line ematea, adostutako lan guztia bertan behera geratzea, itxialdiak ekarritako ondorioak pairatzea...).

Egoeraren berezitasunak, nahasmendu- eta ziurgabetasun-uneak Berdindu eskoletako jarduna paralizatu zuen ia erabat. Hitzartuta ziren hainbat formakuntza, bai irakasleekin zein ikasleekin bertan behera geratu ziren “normaltasun berria” deritzona heldu arte. Osasun egoeraren larritasunak ikasturte berria hasi arte eskolak itxita izatera behartu zuen. Gauzak horrela, iraila arte ez zen ikastetxerik zabaldu.

Laburbilduz Koronabirusaren hedapenaren ondoriozko konfinamendua eta honen ondorengo egoera, erronka izan dira hezkuntza-sistemarentzat eta baita Berdindu zerbitzua osatzen duten profesionalentzat ere. Urte hasieran ezarritako helburuak gainditzeko asmoz, Berdindu zerbitzuko irakasleek orainarteko ikaskuntza-sistema egokitu behar izan dute, une batetik bestera aldatzen den testuingururi aurre egiteko. Gauzak horrela, esan daiteke urteko memoria honek, 2020ko azken hiruhilekoan egindako lan guztiaren isla dela. Hau da, urtebeteko jarduna lau hiletan konzentratu dela hain zuzen ere.

Txosten honek lan-ildo horri jarraipena eman nahi dio, eta eragile sozioekonomikoei eskaini nahi die hobeto uler dezaten nola eta zergatik eragiten duen nabarmen COVID-19aren pandemiak Berdindu zerbitzuaren lana, bai eta erantzunak egokitzeko gomendioak ere, sexu-aniztasunaren ikuspegia kontuan hartuta eta ondorio negatiboak txikituz. Hori guztia, hartzen diren neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezzen, inor atzean utzi gabe.



## BERDINDU HEZKUNTZAKO ZERBITZUAK


Berdindu eskolak 6 jarduera-ildo ditu, memoria honetan baloratuko direnak: aholkularitzak, ikasleentzako prestakuntza, hezkuntzako profesionalentzako prestakuntza espezifikoa bulegoetan, irakasleentzako prestakuntza ikastetxeetan, familientzako prestakuntza eta Berritzeguneetako profesionalentzako prestakuntza.

### IRAKASLEAK – FORMAKUNTZAK ETA AHOLKULARITZAK

#### AHOLKULARITZAK

Aholkularitzen helburuak izan dira: sexu identitatea, genero adierazpena eta desira orientazioaren arteko ezberdintasunak argitzea eta irakaslearekin jarraipen egokia egiteko informazioa partekatzea.

Jarraian, aholkularitzei buruzko esku-hartzeei buruzko datuak zehazten dira



Eskaerak hilabete gutxitan izan diren arren, kopuru polita egin dute, batez ere sentsibilizazioa eta begirada aldatuz doalako eta ikastetxeek **aholkularitza beharra** azaltzen dute. Horrez gain, geletan sexu aniztasuna dagoela hautemateko gaitasuna duen irakasleak gero eta ugariagoak dira, sentsibilizazio prozesu honen bilakaera nabarmena delarik.

#### IKASTETXEAK ETA IRAKASLEEN FORMAKUNTZAK

Garrantzitsua da nabarmentzea dokumentu honetan jaso diren emaitzak biziki baldintzatu dituela COVID-19ren ondoriozko ezohiko egoerak. Martxoan hasi zen konfinamendu orokorreko unea, Berdindu zerbitzu berria martxan jartzearekin batera. Horren ondorioz, ikastetxeek, lehen hilabeteetan, arreta handiagoa jarri zuten errealitate berrira egokitzen, ikasturtea behar bezala amaitzeko, une hartan hain premiazko zat jotzen ez ziren eta bigarren mailara igaro ziren prestakuntza edota aholkularitzetan baino. Horren ondorioz, data horietarako programatuta genituen prestakuntza eta aholkularitza batzuk atzeratu edo bertan behera utzi ziren.



Oro har, hezkuntza-eragileek irakaskuntza eta ikaskuntza jarduerak jarraitu ahal izateko estrategiak aplikatu behar izan dituzte. Normaltasunaren parte ez den bizimodu batera egokituz. Ohiko hezkuntza-eszenatoki batean, egutegi, plangintza eta erritmo jakin bati men eginez. Gainera, irakaskuntzaren edukiak eta ordu-kargak aurrez aurreko formatua jarraitzen dute.

Ikasgelako elkarrekintzan, irakasleak bere materialak ondo ezagutzen ditu, badaki zein unetan erabiliko dituen bere irakaskuntza-estrategiak, hauek, ikasleen erantzunean oinarrituta aldatzen ditu, haiekin modu naturalean harremantzen da eta badaki zer ebaluatuko duen gela bakoitzean.

Hala ere, gaur egungo egoeran, distantzia fisikoa konpontzeko tresna teknologikoak erabil ditzakegun arren, tresna horiek testuinguru jakin batean erabili behar dira hezkuntza-elkarrekintzei forma emateko.

Distantzia sozialean oinarritzen den hezkuntza ez da irtenbide perfektua; hala ere, erakundeak, irakasleak, ikasleak eta familia egokitu daitezke eta formatu honen alderdi erabilgarriak har ditzakete.

Aurrez aurreko hezkuntza eta urrutiko hezkuntza ez dira gauza bera. Hezkuntzari dagokionez berdinak direla uste izatea, akats bat da. Irakaskuntza jardueretan urrutiko hezkuntzaren elementuek erabat baldintzatzen dituzte ikasleen ikaskuntza prozesua eta programen eta instituzion helburuen lorpena.

Pixkanaka-pixkanaka hezitzaileak ikasgeletan sartzen joan diren heinean, gehiago hurbildu ahal izan diraa osasun-alarmaren aurretik erabilitako metodoetara. Hala ere, segurtasun-distantziek parte handia izaten jarraitzen dute. Beraz, lehen planteatzen ziren dinamikak aldatu egin dira dagoeneko.

Hezitzaileek inprobisatu egin behar izan dute. Gela bakoitzaren eta ikasle bakoitzaren egoerak desberdinak izan dira, eta segurtasun-distantzia mantentzera bideratutako programetan lan egin arren, programa horiek ez dira egingarriak izan egoera guztietan.

Ondoriozta daiteke gela bakoitzaren eta ikastetxe bakoitzaren kasuistikak desberdinak direla eta, egoera batzuetan erraztasun handiagoak egon dira prestakuntzan aritzeko orduan, eta beste batzuetan, aldiz, zailtasunek parte-hartze eza ekarri dute.

#### FORMAZIOA JASO DUTEN IKASTETXEAK

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
<b>HAUR HEZKUNZA+LEHEN HEZKUNTZA</b>	3	9	3	15
<b>BIGARREN HEZKUNTZA</b>	1	1	2	4
<b>BESTE IKASTETXE MOTA (PCPI, FP...)</b>	-	-	1	1





Garrantzitsua da azpimarratzea irailean, ikastetxeen "geldialdiaren" ondoren, "Normaltasun berri" bat ikusten hasi zirela, eta, ondorioz, zerbitzua mugitzen hasi zela. Horrek erakusten digu Berdindu Hezkuntza zerbitzuak EAEko ikastetxeentzat duen garrantzia; izan ere, hezkuntza-arloko lehen zailtasunak konpondu ondoren, berriz ere Berdindurekin harremanetan jartzen dira. Ohiz kanpoko osasun-alarmaren egoera eskola-dinamika baldintzatu eta era berean, egoera hori ez ezagutzearen beldurra neurri berriak hartzera eramaten ditu.


### FORMAZIOA JASO DUTEN IRAKASLEAK

Berdindu, bere ibilbide luzearekin, erreferente gisa finkatu da EAEn LGTBI kolektiboarekin zerikusia duen guztian. Hezkuntzaren arloari dagokionez, gero eta ikastetxe gehiagok hezkidetzeta eta sexu- eta genero-aniztasuna batera ulertzen dituzte, eta horixe da, hain zuzen ere, Berdindu eskolak defendatzen duen ekimena. Irakasleek ikasgeletan sexu- eta genero-aniztasuna lantzeko orduan zenbait segurtasun falta sumatzen jarraitzen duten arren, eskerrak eman dute haiei babesa eta aholkularitza emango dien eta Berritzegunearekin batera izan dezaketen zerbitzu espezifiko bat izateagatik.

Jauzi handia eman da formazioa jaso duten irakasleen kopuruan eta bi dira arrazoi nagusienak:

- Batetik, pandemiagatik irailetik abendura bitarteko epean emandako zenbakiak direlako urte amaierako datu hauek.
- Bestetik, koronabirusaren eraginagatik talde txikietan baino ezin izan dugulako lan egin. On lineko aukera hasieratik eskaini arren, ikastetxeek nahiago izan dute erdi presentzialki edo beste modu batzuetan bideratzea.

### AURREKO URTEETAKO ALDEA ZERBITZUAREN ERABILERAN





Bildutako datuetan oinarrituta, lehen begiratuan ondoriozta daiteke zerbitzuaren kontratazioak beherakada izan duela 2020eko ikasturtean. Berdindu zerbitzuaren kontratazioak izugarritzko beherakada izan du osasun-alarmaren egoerak hezkuntza-sistema osoa erebat baldintzatu duelako. Hala ere, grafikoari erreparatuz gero, adierazgarria da zerbitzuaren kontratazioak hartzen duen inertziak. Izan ere, gorakada nabarmenak ematen dira urtez urte. Honezkerok, ondoriozta dezakegu, ikastetxeek, Berdinduk eskaintzen dituen zerbitzuekin gero eta presentzia handiagoa izaten ari duela.

### IRAKASLEEN FORMAKUNTZEN EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Ondorengo taulan formazioa jaso duten irakaleen ebaluazioaren emaitzak jaso dira:


*(1etik 5era: 1- oso gaizki, 2- gaizki, 3- nahikoa, 4- ondo, 5- oso ondo)*

	BALORAZIOA
<b>Edukiak</b>	4,51
<b>Ulegarritasuna</b>	4,56
<b>Metodologia</b>	4,46
<b>Erabilgarritasuna</b>	4,47
<b>Igurikapenak</b>	4,44
<b>NOTA OROKORRA</b>	4,59
<b>Iraupena</b>	Laburra: %18; Egokia: %79 Luzea: %3
<b>Gomendagarria da formakuntza?</b>	Bai: %100; Ez: %0
<b>Zelan sentitu zara?</b>	Ondo: %99, Kili-kolo: %1; Gaizki: %0

Berdindu Eskolak zerbitzuak egoera zehatzetan emandako aholkularitza eta jarraipena asko eskertu dute ikastetxeek eta Berritzegunetako zenbait kidek. Horrez gain, prestakuntzan landu diren **tresnak eta gaiarekiko ikuspegi zabalaren aberastasuna baloratu** dituzte bereziki. Ikus-entzunezko materialen lanketa egiteaz gain, egunerokotasunean ikuspegi txertatzeko irizpideak martxan jarri dira eta kasu edo egoera zehatzak bizi dituzten ikasleei ahalik eta akonpainamendurik egokiena egiteko urratsak landu dira.

### BERDINDU ZERBITZU ERABILI DUTEN IRAKASLE GUZTIEN DATUAK

2020an 765 irakaslek erabili dute Berdindu zerbitzua, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:



## FAMILIEN FORMAKUNTZAK

Koronavirusaren ondorioz, eskolak ez dira ausartu familiak prestatzera. Bi talde baino ez dira gauzatu lehen hezkuntzako bi ikastetxetan. On line ereduak oraindik ez du arrakasta handirik familiekin.

DATA	HERRIA	IKASTETXEA	EMAK.	GIZON	BESTE	GUZTIRA
23/09/2020	Lekeitio	Lekeitio LH	18	2		20
02/12/2020	Oiartzun	Haurtzaro Ikastola	8	1		9
			26	3		29

## IKASLEEN FORMAKUNTZAK

79 tailer egin dira EAE osoan, 33 LHn eta 46 DBHn.


## IKASLEEN TAILER KOPURUA

	LH	DBH	GUZTIRA
<b>ARABA</b>	9	5	14
<b>BIZKAIA</b>	7	29	36
<b>GIPUZKOA</b>	17	12	29
<b>GUZTIRA</b>	33	46	79




### IKASLE KOPURUA 2020

	Neskak	Mutil.	Ez bittarra	GUZTIRA
<b>LH</b>	327	374	12	713
<b>DBH</b>	412	452	13	877
<b>GUZTIRA</b>	739	826	25	1590




### ARABA IKASLE KOPURUA

	Neskak	Mutil.	Ez bitarrak	GUZTIRA
<b>LH</b>	83	92	5	180
<b>DBH</b>	46	51	3	100
<b>GUZTIRA</b>	129	143	8	280




### BIZKAIA IKASLE KOPURUA

	Neskak	Mutil.	Ez bitarrak	GUZTIRA
<b>LH</b>	66	88	-	154
<b>DBH</b>	288	294	4	586
<b>GUZTIRA</b>	354	382	4	740



### GIPUZKOA IKASLE KOPURUA

	Neskak	Mutil.	Ez bitarrak	GUZTIRA
<b>LH</b>	178	194	7	379
<b>DBH</b>	78	107	6	191
<b>GUZTIRA</b>	256	301	13	570





## LEHEN HEZKUNTZAKO BALORAZIOA

### **Edukiak**

Generoa bizitzeko duten moduak zeharo baldintzatzen du euren interesa tailerrarekiko. Betiere metodologia moldatu daitekeen arren arreta erakartzeko, taldean generoa landu bada edo norbaitek modu ez hegemoniko batetan bizi badu bere egoera, gogo handiagoz hartzen dutela agerikoa da. Dena den, genero araukin haustea zer den eta bakoitzari nola eragiten dion hitz egiteko espazio hau sortzea ederki dator hainbat norbanakoren egoerarako. Izan ere, askok ez dute aukera askorik (edo batere) kontu hauek lasai jorratzeko besteekin, eta tailer honek aukera ematen die euren gaizki egona gestionatu eta euren parekoek zer pentsatzen duten jakiteko, hala nola errespetua lantzeko.

### **Metodologia**

Talde guztiak ezberdinak dira baina orokorrean jolas, elkarrizketa, bideo eta azalpenak tartekatzen ditugu, modu honetan, hobeto funtzionatzen baitute. Hala, talde bakoitzarekin pixka bat moldatzen dugu gai bakoitza, nola jorratu eta ekintza bakoitzaren iraupena, baina nahiko berdin egin ohi ditugu.

### **Ikasleak nola sentitu dira**

Orokorrean gustura egon ohi dira. Gai ezberdinak jorratzen dituguenez, eta guk nola bizitzen ditugun puntutik abiatuz, lotsa eta urduritasuna ere ematen dira, baina osasuntsua ez den ezer ez. Gaietan sakontzen laguntzen diete emozio horiek, hobeto ulertzen zer diren ezberdintasun hauek, tabuak (hitzezko zein gorputzezkoak) haustean gertatzen dena izan ere. Txarto sentitu direnak orokorrean genero arauak haustea “debekatuta” duten ikasleak izaten dira, edo “sekreto” bat dutenak gai honekin lotuta, azken hauentzat lagungarria izanik.

### **Zer iruditu zaie**

Gehingoari tailer egokia iruditzen zaio. Euren generoa modu hegemonikoan edo tabu sakratu bezala bizi dutenek soilik izan ohi dute arazoren bat, beti ere gutxiengo nabarmen bat izanik. Honek adierazten digu diskurtso publikoan sexu-genero aniztasuna onartu behar dugula manejatzen dugula. Hori bai, honek ez du esan nahi errespetua aniztasun guztiarentzat lortuta dagoenik noski (gehien lortu dugun eskubidea eremu pribatuan nahi dugun pertsonarekin harreman sexualak eduki al izatea da), baizik eta moralki zuzena dela esaten dugula.

### **Ibilbidea**

Gutxiengo batek berdin jarraitzen duela esan du, hau da, tailerrak ez diola askotarako balio izan. Denek ikasten dutela nabarmen da, baina errealitate hauetatik urrunen daudenek ez dituzte guk nahi beste ideia barneratzen. Bereziki aipagarriak dira euren egoera pertsonalean eragiten duen pertsona horien kasua. Hau da, hainbat ikaslek genero arauak apurtzen dituzte noski, baina gai horietaz lasai hitz egitea oso zaila da gure gizartearen. Asko izan dira saio amaieran hurbildu direnak eskerrak ematera gai hauek jorratzeagatik, aukera eman baitie isilik zuten zerbait ateratzeko, edo bere lagunek zer pentsatzen duten jakiteko, hala besterik gabe eurengan ezer txarrik ez dagoela jakiteko.



## HOBETU BEHARREKOAK

### Metodologia

Minimo bat landuta dagoenean sexu-genero aniztasunaren inguruan, tailerrak aberatsagoak dira, ikasleek egoera berezi hau erabili baitezakete hainbat kontutaz hitz egiteko. Gaia landuta ez dagoen talde batzuek interes gutxiago erakutsi dute, euren esperientziak bilatzen baititugu, eta gogoeta eragin ez zaienez, gehiago kostatzen zaie.

### Edukiak

Aurreko puntuan azaltzen denetik abiatuz sexu-genero aniztasuna oso aberatsa dela esan beharra dago. Baina oinarri batetik lantzen hasi behar gara. Gai ezberdinak jorratu nahi baditugu

### Hizlaria

Nabarmena izan da aurtengo koordinazio berriak ekarri dizkigun onurak. Izan ere, gure metodologia, eduki eta materialak partekatzea, eta elkarren artean gidoi eta helburu batzuk zehaztu ditugu, gu guztion lana eta gaitasunak aberastuz.

## TAILERRAREN EGITURA

Taldearen egitura eta beharren arabera aldatu daiteke, ekintza eta gai ezberdinak jorratzeko margen bat izanik beti ere. Gainera, esan beharrik ez dugu hezitzailearen arabera gidioa zeharo aldatu daitekela ekintzei dagokionez, norberaren estiloak moldatu egiten baitu, baina oinarri eta helburu orokorrak mantenduz. Hona jarraitzen dugun gidoi baten adibide bat.

- *Sexu-genero (ez)berdintasunak: ikasle bakoitzari galdetu mutila ala neska den, eta ondoren gure arteko antzekotasun eta ezberdintasunak argitu. Beraiek egiten dute, nola ulertzen duten euren bizipenetatik. Genero muga eta obligazioetan sartzen gara, gure baldintzapenak agertuz (30 min).*
- *Llagun batek euren sexu bereko jendea gustuko duela imajinatzeko eskatzen diegu, bai euren laguna zein beraiek nola sentituko liratekeen imajinatzea eskatuz, baita euren erantzuna. Elkarren artean partekatzen eta eztabaidatzen dugu imajinatutakoa*
- *Genero binarioaren hausketa hobeto ulertzeko, bi talde egiten ditugu, handiena eta txikiena. Ulertu egiten dute pertzepzio subjektibo bat dela. Ondoren lerro bat egitea eskatzen zaie euren gertutasunaren arabera munduko pertsona handiena eta txikienaren artean. Honen ostean berdina egiten dugu generoarekin. Maskulinitate-feminitate lerro batetan amaituz zeinetan bakoitza bi muturren artean kokatzen den gusturen sentitzen den tokian*
- *Genero ez binarioak beste kultura batzuetan. Mundu mapa erakusten diegu eta beraiek izen ezberdinak kokatu behar dituzte nongoak diren asmatuz. Ondoren ea nork asmatu duen ikusten dugu eta azaldu egiten dugu zer esan nahi duen hitz bakoitzak, ze beste genero ezagutzen ditugun.*



- *Tailerraren inguruan arreta deitu dien zerbait, oroitzapen zein harremandutako edozein ideia marraztu. Irudikapenaren bitartez ideiak garatu behar dituzte, jorratu denetik hainbat ideia barneratu behar dira marrazki bat egiteko. Gainera kontatu ez den zerbait berria adierazteko ere balio du. Euren baimenarekin paretetan jartzen ditugu, denek ikusi ditzaten eta komentatu ditzaten.*

*Oharra: COVID 19tik eratorritako osasun-egoerari dagokionez, gure metodologia eta dinamikak LH-n eta DBH-n ahalik eta gehien egokitu behar izan ditugu ikasgelan gaur egun bizi dugun errealitatearekin bat egiteko (segurtasun-distantzia mantentzea, materiala ez partekatzea, aukietatik ez mugitzea, etab.).*

## DBH-KO BALORAZIOA

### **Edukiak**

Arreta gehien emakumeek adierazi ohi dute beti bezala. Ez da arraroa, azken finean pertzibitzen ez den zerbaiten inguruan eztabaidatzea zeharo konplexua da. Hau da, diskurtso publikoan genero kuestionatu egin da emakumearen ikuspegitik (feminismoa) baina gizonak ez du berea kuestionatu (zerbaitetan hasi bagara ere, eta geroz eta mutil gehiago aurkitu ditugu kuestionamendu honetan, batik bat maskulinitasun hain garatuak ez dituzten horiek). Kasuak kasu noski, araua beti hausten baita eta edozein gorputzek hautsi edo jasan ditzake genero arauak. Gure sexismoa gehien kuestionatu den taldeetan gogo handiagoz hartu ohi dute.

### **Metodologia**

4 orduko tailerra kasu gehienetan laburra geratu arren eta nahiz eta asko sakontzeko aukerarik ez izan, behintzat oinarritzotzat ematen ditugun gai batzuk barneratzeko aukera ematen du.

Nerabezaro erdian daudenez (besteen aurrean norbera den bezala erakusteko garai zaila) kostatu egiten zaie euren egoera pertsonalaz hitz egitea, orokortasunetara jo ohi dute, ariketa erreflexiboetara joz. Askotan ez zaigu erraza konfiantza giroa sortzea, taldeak ez badu lehenagotik sortua. Kasu batzuetan, gaiak beraietatik urruti antzematen badituzte eta errealitate subjektibo eta abstraktu bat bezala ulertzeko arriskua dago, denok ez baitugu kontzeptu abstraktuak barneratzeko gaitasun berdina.

### **Ikasleak nola sentitu dira**

Orokorrean gustura egoten diren arren badaude salbuespenak noski. Momentu batzuetan aspertu egiten direnak alde batetik, eta deseroso eta lotsatuta sentitzen direnak bestetik. Gai hauek tabu direla ulertu behar dugu, beraz “ukitu” egiten ez dituenak arrotz senti ditzake, hauekin kontaktatu gabe, eta aspertu. Eta bestalde deseroso, urduri, lotsatuta, senti daitezke, gai “intimoak” izaten baitira, besteen aurrean norbera erakustekak dakartzan arriskuekin autokontzeptu eta autoestimua aldaketa prozesu handian dauden garai batetan.

Azken honengatik tailer hauek oso garrantzitsuak direla uste dugu, hainbatek euren indibidualitatean bizi baitituzte kontu hauek.





## Zer iruditu zaie

Orokorrean egokia iruditzen zaie, gaia interesgarria dela diote eta eskertu ohi dute, denbora gehiago eskaini beharko litzaiokeela esanez. Genero hegemonikoak kuestionatu dituztenek egin ohi dute balorazio hori, neskak gehienak.

## Ibilbidea

Orokorrean denek ikasten dute zerbait, gaiari guztiz itxita dagoena kenduta noski. Hala ere, askok berdin jarraitzen dutela esan ohi dute. Hau bere testuinguruan ulertu behar dugu. Izan ere hauetako askok gauza berriak ikasi dituztela diote, eta aldi berean berdin jarraitzen dutela. Galderaren formulazioan jarri behar dugu arreta, askok errespetuaren aldetik ulertzen baitute. Badakigu denok dena errespetatu behar dugula, hori da gure garaiko moral publikoa, zuzena dena diskurtso publikoan. Hau da, sexuazioa bizitzeko dauden modu guztiak “errespetatu” behar direla diote, tailerra baino lehen eta ondoren. Baina hainbat konturen inguruan hausnartzeko balio die, eta baliteke momentuan aldaketa hori ez onartzean (azken finean uste zenuen bezain pertsona ona ez zarela esatea baita), baina ideia berri batzuen hasiera izatea. Baita ere talde dinamika pixka bat aldatzeko aukera sortzen da, gai berri batzuk jorratu ahal izanik besteekin publikoki.

## HOBETU BEHARREKOAK

### Metodologia

Gutxienez 4 ordu behar ditugu tailer hauek modu egokian jorratu ahal izateko. Uste dugu ere, eskolako kurrikulumeko parte izatea interesgarria izango zela

### Edukiak

Ikasle askok eskatzen digutena, harremanen inguruan denbora gehiago hitz egitea da, baita ere, harreman heterosexualen inguruan eta arautik kanpo gelditzen diren harremanak jorratzea.

### TAILERRAREN EGITURA

Taldearen egitura eta beharren arabera aldatu daiteke, ekintza eta gai ezberdinak jorratzeko margen bat izanik beti ere. Gainera, esan beharrik ez dugu hezitzailearen arabera gidoia zaldatu daitekela ekintzei dagokionez, norberaren estiloak moldatu egiten baitu, baina oinarri eta helburu orokorrak mantenduz hona jarraitzen dugun gidoi baten adibide bat.

- *Gizaki bat sortu. Gizaki bat marraztu, eta ondoren bizitza bat sortu. Ondoren, binaka, kideari kontatu, eta honek arbelean marraztu beharko du. Gure “normalitateak”, gizaki irudikapenetik at, ze errealitate uzten ditugun ikusi, bereziki sexualitateari dagokionari. Gure mugak eta diskriminazio patroien inguruan hausnarketa, diskriminazioaren maila ezberdinen inguruan solastu*
- *Sexu-genero dimentsioak eta hurrengo kontzeptuak definitu: sexismoa, heterosexismoa, eta heteroarautik at ditugun egoera ezagunenak, hau da homo, bi, “marika”, “bollo” eta trans.*





- *Euren desira sexualengatik galdetu, ze gorputz erakarri egiten dituzten, nolako praktikak eduki nahi dituzten... Hetero-arauarekin alderatu, ze mugatuta gauden ikusi. Zerk bideratzen du gure libidoa, jaiotzaz ala kulturala? Gogoeta pertsonala utzi. Eredu eskasia salatu (pornoeskola), imajinazioa faltan, pornografiatik at zer*
- *Errealitatea kokatuz. Irudikapen-pertzepzioa harremanean sartu. Imajinazio eta fantasiaren garrantzia errealitate berriak esploratu eta ulertu ahal izateko. (banqueta o taburte laburmetraia). Gure sexualitatea beste modu batetan irudikatu dezakegu*
- *28 egunaren esanahia eta historia eta LGTBI kolektiboa*
- *Generoak kultura ezberdinetan*
- *Noiz sentitzen dut bereziki generoa? Noiz naiz diskriminatua? Dismkriminazio anitzen jolasa. Genero zapalkuntza gogoeta, moldatu egiten naiz egoerara edo aurre egien diot? Estrategia ezberdinen inguruan solastu. Eta nik inguruari zer erakusten diot, onarpena ala mugak ditut? Zer aldatu dezakegu gure inguruan? Gogoeta kolektibo eta pertsonala*

## ONDORIOAK

Ebaluazio kualitatiboa osatzeko hiru lurraldeetako hezitzaile desberdinen iritzia, ikuspuntu bizipen, etab. desberdinetatik abiatu gara. Guzti horiekin, beraz, ebaluazio-orri moduko bat osatu dugu.

Esan beharrik ez dago aurtengo urtea bereziki zaila izan dela. Alde batetik martxoa geroztik genituen esku-hartze guztiak bertan behera geratu ziren bizi genuen larrialdi egoera hura zela-eta. Halaber, horiekin martxoan bertan beste data berri batzuk zehaztea ezinezkoa izan zen bizi genuen ez jakintasun egoera zela-eta.

Aurreko hori azpimarratu ostean, egin diren 79 esku hartze horietatik honako hau ondorioztatzen dugu:

Ikasleen artean dagoen ezagutza mailari dagokionez, adinean gora egin ahala geroz eta desoreka nabarmenagoak nabari dira. Ikasle batzuk kontzeptu askoz zehatz eta konplexuagoen jabe dira eta beste batzuk aldiz ez dira ezagutza maila gutxienera iristen aniztasun afektibo sexualaren inguruan. Gela berean, halaber, hausnarketa eta teorizatorako gaitasun desberdinak daude ere. Hori guztiak zaildu egiten du esku hartzea ikasle guztietara egokitu ahal izatea. Dena den, positiboki baloratzen dugu zenbat ikasleren artean nabari den jakinmin eta ezagutza.

Aurretik esandako horren harira, azpimarratu nahi dugu genero rolek bete-betetan zeharkatzen dituztela saioak eta ez dela kasualitatea gehienetan neska bezala sozializatutako ikasleak izatea gaiari modu positiboago batean heltzen diotenak, parte-hartze egokiagoak dituztenak, sentsibilizazio handiagoa erakusten dutenak, etab. Mutilen parte-hartzeak aldiz maskulinitate hegemonikotik dira gehienetan, saioak boikoteatu edota gaiari balioa kendu nahian, edota marko oso zishetero batetik abiatutako ekarpenak eginez.



Bestetik, aipagarria da baita ere LGTBQ+ ikasleak dauden ikasgeletan errazagoa izan ohi dela aniztasunaren ideia landu eta hori, nolabait, gelan bertan txertatzen saiatzea. Orokorrean, gela horietako ikaskideek jarrera postiboagoak erakusten dituzte gaiaren inguruan. Dena den, ezin genezake aurreko ideia hori gela guztietan gertatzen denik esan eta badira zenbait gela jarrera erasokorrak erakutsi dituztenak bertan kolektiboko ikasle bat egonik ere.

Azkenik, azpimarratu nahiko genuke ere osasunerako babes-neurriek zaildu egin dutela gure jarduna. Musukoen erabilera, distantziak gelan... horrek guztiak oztopatu egiten du giro goxo eta konfiantzazko bat sortzea, eta sumatu egiten da gerora saioen nondik-norakoan.

Laburbilduz, nahiko urte aldrebesa izan den arren, uste dugu esku hartzeak ahalik eta modu eraginkorrean gauzatu direla eta beste urte batez ere, tailerrak probetxuzkoak izan direla baieztatu dezakegu.

#### BESTE INTERES-TALDE BATZUK

Berdindu Eskolak ikastetxeetan eskaintzen dituen prestakuntzekin eta gainerako zerbitzuekin batera, 2020. urtean interes-taldeen atal berri bat sartu da. Aurreko edizioetan bezala, prestakuntza eman da EHU-n Orientaziorako Masterraren barruan (20 ordu guztira), eta lehen aldiz, kirolaren arloan sexu- eta/edo genero-aniztasuna lantzeari ekin zaio.

Osasun-alarmako egoera gorabehera, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zerbitzuarekin komunikazio-ildo bat ezarri ahal izan da, eta zerbitzuko teknikari guztiei prestakuntza eman zaie (3 orduko prestakuntza Faturan). Hasiara ona dibertsitatearen ideia oraindik erresistentzia askok irauten duten eremu batean sartzeko, gehienetan forma oso sotilean gertatzen badira ere.